

HANNAH ARENDT ETA GAIZKIAREN HUTSALTASUNA

NOLA ERREPRODUZITZEN DA GAUR EGUN?



LARRUN#290

Adolf Eichmann

ERRUGABEA SENTITZEN ZEN GOI KARGUDUN NAZIA

EGILEA | **GORKA PEÑAGARIKANO**

AZALA | **JOSEBA LARRATXE JOSEVISKY**

Aurten 60 urte bete dira Hannah Arendtek *Eichmann Jerusalem* liburua kaleratu zuenetik. Urte bat gehiago pasatu da Adolf Eichmann funtzionario nazia, Holokaustoaren "arduradun logistikoa", Israelen urkatu zutenetik. Eichmannen epaiketaren jarraipen periodistiko-filosofikoa egin zuen Arendtek *New Yorker* aldizkariarentzat, eta kronika horiek bildu eta beste hainbat apunte berreskuratuta argitaratu zuen liburua. Polemika piztu zuen: Eichmannen erruduntasuna ukatzen ez bazuen ere, gizon arrunt eta inkontziente gisa deskribatu zuen Arendtek, hain obediente zena agindue-

kiko, *ongia* ala *gaizkia* egiteak ez zuela batere axola. Eichmann deskribatzeko, filosofiaren ikasgaietan hain ezaguna den terminoa sortu zuen Arendtek: *gaizkiaren hutsaltasuna*.

Liburua euskaraz irakurtzeko aukera bagenuen lehendik ere, baina Katakarak argitaletxeak, urteurrenaren aitzakia hartuta, itzulpena egokituta berrargitaratu du.

Gaizkiaren hutsaltasuna gisako kontzeptuak, obedientzia eta desobedientiaren antzera, gaur egunean nola erreproduzitzen diren aztertzeko ahalegina egingo dugu filosofo eta politologoaren arteko mahai inguruan. Aurrez, baina, testuinguru apur bat.

LARRUN HILABETEKARI MONOGRAFIKOA · ARGIAren 2.848 zenbakiarekin banatua.

JABEA: KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L. **HELBIDEA:** ZIRKUITU IBILBIDEA, 15. PABILOIA 20160 LASARTE-ORIA **TELEFONOA:** (00 34) 943 37 15 45

POSTA ELEKTRONIKOA: LARRUN@ARGIA.EUS **INPRIMATEGIA:** ANTZA KOMUNIKAZIO GRAFIKOA **DISEINUA:** MAITANE GARTZIANDIA

2023ko azaroaren 26a

Sententzia honelaxe eman zen, 1961eko abenduaren 15ean, 114 auzi-saioren ondoren. Moshe Landau tribunaleko buruak leitu zuen:

Akusatua zigortzeko eta jendearen kezka uxatzeko, legean jasotako zigorrik gogorrena ezarri behar diogu akusatuari. Sententzia honetan deskribatzen dugun moduan, parekorik ez duen izugarrikeriazko delituetan hartu du parte. Krimen horien helburua judu herria izan da, judutarrak mundu honetatik desagerraraztea. Arrazoi horrengatik, norbanakoen aurkako krimenetatik bereizi behar ditugu ekintza horiek, eta gizateriaren aurkako ekintza larri gisa kalifikatu. Izan ere, pertsona talde baten kontrako jarduera izan da, giza-talde horretakoa izate hutsagatik. (...) Beraz, aipaturikoak aipatuta, tribunal honek heriotza zigorra ezartzen dio Adolf Eichmanni, herri juduaren aurkako krimenengatik, gizateriaren kontrako krimenengatik eta gerra-krimenengatik.



**“EZ NAIZ USTE
DUZUEN MUNSTROA.
ERABAT KOBENTZITUTA
NAGO BESTE
BATZUENGATIK ORDAINDU
BEHAR DUDALA”**

ADOLF EICHMANN

Urkatzera kondenatzen zuen sententzia emanda ere, Eichmannek ez zuen gehiegi aldatu ordura arteko diskurtsoa. Hauxe izan zen epaitegiko azken hitzartzea:

Arretaz entzun dut tribunalaren epai zorrotza. Nire justizia-itxaropenetan huts egiten dut. Ezin dut onartu erruduntasun-epaia. Judu herriaren aurkako krimenetako espazio demanda ulertzen dut.

Epaiketa honetan lekukoek egindako adierazpenek hankak epeldu dizkidate, halaberrez gertakari horietara joan behar izan nuenean dardara egin zidaten bezala. Nire bizitzako zoritxarra basakeria horietan nahastuta egotea izan da, baina ernalketa horiek ez ziren nire nahien arabera gertatu. Ez nuen jendea hil nahi. Hilketa masiboaren ardura buruzagi politikoen errua baino ez da. (...) Ez naiz uste duzuen munstroa. Erabat konbentzitura nago hemen ordaindu behar dudala beste batzuegatik.

Eichmannek errekurritu egin zuen sententzia, eta sei hilabetez luzatu zen kartzelaldia. Ez zuen ezer aldatzeko balio izan. Hala, 1961eko ekainaren 1ean, espetxeko patioan urkatu zuten Eichmann. Bere gorpua erraustu zuten, eta errautsak Mediterraneora bota zituzten. Israelek jarritako lehenbiziko heriotza zigorra zen.



Nor zen Adolf Eichmann?

Karl Adolf Eichmann (Solingen, Alemaniako Inperioa, 1906 - Ramleh, Israel, 1962) Alemania naziko SSetako goi-mailako ofiziala izan zen, bereziki ezaguna Azken Konponbidea edo Azken Soluzioa deitu zitzaioneko “arduradun logistiko” gisa izendatu izan delako. Deportatuak kontzentrazio-esparruetara eramateko garraio-plangintza bere ardura zen. Reinhard Heydrichekin eskuz esku aritu zen lanean; bien artean planifikatu eta garatu zituzten kontzentrazio- eta sarraski-esparruen kokapenak, distantziak, ibilbideak eta denborak. Deportatuen hilketak azkartu behar baziren, prozesua azkartzen “bereziki abila” omen zen Eichmann.

IBILBIDEA ALDERDI NAZIAN

26 urterekin afiliatu zen Alderdi Nazian, bizitoki zuen Austrian. Handik urtebetera nazionalsozialista naziak boterera heldu ziren Alemanian, Hitler jarri zen agintari, eta egun gutxiren buruan Austriak legez kanpokotzat izendatu zuen alderdia. Beraz, beste asko bezala, Alemaniara pasatu zen Eichmann. Alderdi Naziaren barnean postu bat baino gehiago izan ondoren heldu zen Segurtasun Zerbitzuan lan egitera, 1930eko hamarkadaren erdialdera. Bulego horrek erakunde juduen “zaintza” zuen helburu, zeina, hasiera batean bederen, elkarte sionista antolatue-

kin negoziatzean zetzan. Juduak botanahiz zituzten herrialdetik, ahal bazen emigratio plan bat osatu eta judu burgesekin akordiora helduta, eta elkarrizketak denboran luzatu ziren. Ikuskapen bisita bat edo beste egin zuten Palestinara, juduen estatua sortzeko asmotan. Elkarte horiekin harreman zuzena edukita heldu zen gerora kontzentrazio esparruetara deportatuko zituen juduen bizilekua jakitera.

Kanporatze-prozesua areagotu egin zen behin III. Reich-ean,

1938an, Alemaniak Austria anexionatu zuenean. Emigratio juduaz arduratzen zen bulego esanguratsu bat ireki zuten Vienan, Eichmann egin zen arduradunetako bat, eta barne-kalkuluak egin ostean, juduen emigratio edo kanporatze plan masibo bat osatu zuten: Austriako 110.000 judutarrek haien lurra utzi zituzten urtebete eska-sean. Ekintza “arrakastatsua” izan zen Alderdi Naziarentzat, eta ospea Eichmannentzat. Beraz, “Alemania juduengandik askatzeko” estrategiaren kargudun egin zuten 1939an.

II. Mundu Gerra leher-tu zen segituan, eta egoera konplikatzen hasi zitzairen naziei, juduen aurkako plan guztiak martxan jarri ahal izateko. Gerra gogortzen hasi zen Ekialdean, Sobietar Batasuna inbaditzeko asmoa zuen Hitlerrek, eta ez zuten bidegarri ikusten emigratio eta deportazio planekin jarraitzea. Hortaz, 1942an, Reich-aren Segurtasun Bulego Zentraleko buru Heydrichek, urgentziazko bilera deitu zuen Berlinen, Wannseen, eta goi-kargudunek hor hartu zuten Azken Soluziora pasatzeko erabakia. Eichmann presente zegoen bilera horretan, eta berari esleitu zioten ardura postu handietako bat.

Sei milioi judutar inguru erail zituzten naziek. Orduko hartan Europan bizi ziren hiru judutarretik bi.



ATXILOKETA POLEMIKOA

Bigarren Mundu Gerra amaitu zenean ihesari ekin zion Eichmannek, eta desagertuta edo hila zegoela pentsatzera heldu zen justizia aplikatu nahi zuen jendea, batez ere Israelgo Gobernu, harik eta 1959an Mossad inteligentzia agentzia israeldarrak Argentinan topatu zuen arte. Hamarkada horretan Ricardo Klement izenpean gorde zen, eta egurgile moduan eta beste hainbat ofiziotan jardun zuen. Israelek atzeman baino hilabete gutxi lehenago, Mercedes-Benz auto enpresa ezagun alemaniarrek Buenos Airesen zeukan lantegiko gerente izendatu zuten, baina ez zuten horregatik harrapatu, nahiz enpresa zelaturik egon zen urte luzez, nazismoarekin lotura izan zuelako. Eichmannek judu alemaniar bat zeukan bizilagun, Lothar Hermann, Alderdi Komunistako kide ohi bat, kasik heriotzaraino torturatua izan zena Alemania nazian. Itsu geratu zen betirako. Eichmannen semeak eta Hermannen alabak elkarrekin jolasten zuten auzoan, eta alabak kontatzen zizkion kontuengatik heldu zen Hermann jauna zerbait susmatzera. Israelgo Gobernuari jakinarazi zion. Hari horri tiraka heldu zen Mossad zerbitzu sekretua jeneral nazi ohi atxilotzera.

Israelgo lehen ministro David Ben-Gurionek propio eskatuta, Mossadek planifikazio berezia egin zuen Eichmann atxilotzeko, Argentinako Gobernuaren beldur, ez ote zituen estradizio baimenak ukatuko -kasuren batean edo bestean gertatu zen aurretiaz-. Isilpean egin zuten operazioa. Modu irregularrean harrapatu zuten Eichmann, eta bahituta eduki apartamentu batean, tortura eta galdeketapean, gobernu argentinarrak baimena



**ISRAELEK MODU
IRREGULARREAN
ATXILOTU ZUEN
EICHMANN, BAHITU,
TORTURAPEAN EDUKI
ETA ISRAELERA ERAMAN,
ARGENTINARI EZER
JAKINARAZI GABE**

**EICHMANN JERUSALEMEN**

Gaizkiaren hutsaltasunaren gaineko txosten bat egin zuen Hannah Arendtek 1963an. Urteurrenaren harira, Koro Navaroren itzulpen berrikusia argitaratu du Katakrakek.

emateko zain hegazkin israeldar batek lur hartzeko Buenos Airesen. Astebete behar izan zuten baime-na eskuratzeko. Behin hori eginda, Argentinako Gobernuari ezer jakinarazi gabe, Eichmann hegazkintera eraman zuten herritar arrunt bat bailitzan, mekanikariz jantzita, erabat drogatuta eta pasaporte faltsu batekin. Mugazainei mozkortuta zihoala esan zioten.

Krisi diplomatiko larria sortu zen. Argentinak salatu zuen bere subiranotasuna bortxatu zela, bere herritar bat bahitu eta atxikita eraman zutela, eta Nazioarteko Zuzenbideak ez zuela halakorik baimentzen. Nazio Batuen Erakundeak babesa helarazi zion Argentinari, eta gauzak horrela, berez, Eichmann itzularazi behar zuen Israelek, baina ez zuen sekula halakorik egin. NBERi gogorrago jokatzeko eskatu zion Argentinak, baina alferrik. Gerora jakin zen Israelek ordaindu egin zion Argentinari, "kantitate esanguratsu bat", bazterrak gehiago nahas ez zitzaizten.

**EPAIKETAREN
HAINBAT GAKO**

Nazioartearen arreta bereganatu zuen Eichmannen aurkako epaiketak, eta egin zitzaion jarraipen informatiboa oso handia izan zen garaiko teknologiak aintzat hartuta. Berriemaile horietako bat izan zen Hannah Arendt filosofoa, alemaniarra jaiotzez, judua erlijioz, bizilekua AEBetan zuena, nazismotik ihesi joana. *New Yorker* aldizkariari bere burua aurkeztu zion kronikagile gisa Jerusalemara joateko, juizioaren jarraipena egitera. Ordurako sona bazuen Arendtek, urte gutxi lehenago kaleratu baitzuen *Totalitarismoaren jatorria* liburua, oinarri teoriko sakona duena nazismoan.

Lehenbizikoa aldia zen Israelgo estatu sortu berriak Eichmannen mailako nazi bat epaitzen zuela, eta ikusmina handia zen. Prestaketa lanek hilabeteak eman zituzten. Moshe Landau zen epaile burua, eta albo banatan izan zituen Benjamin Halevy eta Yitzhak Raveh epaileak. Jaiotzez alemaniarrak ziren hirurak, baina hebreeraz hitz egin zuten aldi oro. Ondo baino hobeto entenditzen zioten Eichmanni, eta horren adibide, bere itzultzaileari ez ziotela uzten esaldiak amaitzen, ez zutelako, berez, itzultzailearen beharrik. Zuzendu ere egin zioten zenbaitetan, itzulitakoa hain zehatza eta zuzena ez zelakoan.

Epaiketaren espektatibak hain ziren altuak, Arendtek ondo baino hobeto sumatu zuela Israelgo Gobernuaren asmoa gehiago zela nazismoa eta holokaustoa bera zigortzea, Eichmannen jarduna epaitzea baino. Agintari nazien aurka egindako Nurenbergeko epaike-




PALESTINAKO LURRETAN ERATU ZEN ESTATU BERRIARI, ISRAELI, BERE EXISTENTZIA JUSTIFIKATZEKO BIDEA EMANGO ZION JUIZIOA ARRAKASTAZ GAUZATZEAK

tetan entzun ez zirenak entzun zitezzen nahi zuten Ben-Gurionek, eta nolabait ere aurpegia jarri nahi zion milioika juduren aurka egindako sarraski ikaragarri hari, eta ahotsa eskaini biktimei. Espektatibak altuak ziren, bai, Palestinako lurretan eratu zuten estatu berri hark halako juizio bat ganoraz egi-

tea nahi zutelako, eta arrakastaz gauzatze horrek Israelen existentzia justifikatzeko bidea emango zuelako. Arendten hitzetan lehen ministroa bera izan zen juizio-ko “eszena zuzendari ikusezina”, saio bakar batera azaldu gabe, Gideon Hausner fiskal nagusiaren ahotsean mintzatu zelako. Epaile nagusiak, ordea, ahaleginak eta bi egin zituen horretatik ihes egiteko.

ARENDTEN IRAKURKETA

Haizearen kontra moduan jardun zuen Arendtek. Besteak beste gogor kritikatu zuen Ben-Gurion lehen ministroaren asmoa, eta horrez gain, judu burgesak asaldatu zituen apuntea egin zuen: haien ipurdia salbatzeko, klase altuko juduek emandako informazioari esker hil zituela nazismoak horrenbeste judu. Haien antolamendurik ez balego, edota judu-taldeak non bizi ziren jakingo ez balute, nekez izango ziren hainbeste; halako zer-





bait dio Arendtek liburuan. Jakina, sekulakoak eta bi entzun zituen ondorenean, eta hurbilekoak zituen hainbat lagun filosofo galdu zituen.

Bestalde, *gaizkiaren hutsaltasuna* terminoaren erabilera ezerosoa egin zitzaion jendarteari. Akaso horrexegatik, Ben-Gurionen antzera, errazagoa zelako Eichmann anker gisa definitu eta buelta gehiago ez ematea. Hutsaltasuna, pertsona batek kontzientziarik ez edukitzea, noren errua da? Halako eta bestelako galderak, Arendten irakurketa hartatik sor zitezkeenak, eta sortu zirenak, nahiago ziren isilean mantendu eta gutxiago pentsatu.

Hauexek dira epilogoaren aurretiazko Arendten azken hitzak, Eichmann urkatzera zeramatenean kontatzen hasita:



**“JUDUAK BIZI ZIREN
LEKUETAN AGINTARI
JUDUAK ZEUDEN, ETA
HAIEN ANTOLAMENDURIK
EZ BALEGO, NEKEZ
HILKO ZITUZTEN NAZIEK
HAINBESTE JUDUTAR”**

HANNAH ARENDT

“Nik ez dut horren beharrik”, esan zuen [Eichmannek] kapusai beltza eskaini ziotenean. Bere buruaren jabe zen arrunt, baita gehiago ere: zen bezalakoxea zen.


Ezerk ezin izan zuen hori hobeto frogatu esan zituen azkeneko hitzen txatxukeria irragarriak baino: (...) “Puska labur baten ondoren, jaunok, *denok elkartuko gara ostera*. Horixe da gizon guztion patua. Gora Alemania! Gora Argentina! Gora Austria! *Sekula ez ditut ahaztuko*”. Heriotzaren aurrean, hiletaren oratorian erabiltzen den klixeya aurkitu zuen. Urkamendian, azken jokaldi makurra egin zion memoriak; “bozkarioa” sentitzen zuelarik, ahaztu egin zitzaion orduko hura bere hileta zela. Nolabait ere, ematen zuen azkeneko minutu haietan Eichmannek laburbildu egin zuela giza zitalkerian egin zuen bide luzeak guri erakutsiko digun irakasbidea: hitza eta pentsamendua motz uzten dituen *gaizkiaren hutsaltasun* beldurgarriaren irakasbidea.

AUSCHWITZ, GAZA

Sionismoa miresten zuen naziari buruzko oharrak

1 946an 50 urte betetzen ziren sionismoaren fundatzailea izan zen Theodor Herzl-ek *Der Judenstaat (Juduen Estatuak)* argitaratu zuenetik. Sortu berria zen *Commentary* aldizkari judu liberaleko editoreek Hannah Arendt testu bat eskatu zioten Herzlen liburuaren urteurrenaren aitzakiarekin. Auzia zen urtebete lehenago Arendtek *Commentary*-ren erredakziora bidalitako *Zionism Reconsidered* (Sionismoa berriz pentsatuz) testua ez zutela argitaratu. Arendtek zergatia zein zen galdetu zienean, Clement Greenberg editoreak erantzun zion “testuak inplikazio antisemita gehiegi zeuzkala, ez [Arendtek] hala nahi zuelako, baizik eta irakurle *etsaikorrek* hala interpreta zezakelako”.

Greenergen erantzuna, ordutik gaur arte, oso zabaldua dago Israelgo Estatuaren defendatzaileen artean: sionismoari egiten zaion kritika oro antisemitismotzat jotzen da. Baina Arendtek sionismoarekin gero eta nabarmenagoa zuen distantzia atzetik zetorren, “mende erdi atzera ideal altuak zeuzkan” proiektu bat izango zen, akaso,



Naziek eta sionistek helburu partekatuak zeuzkaten: naziek juduak ebakatu nahi zituzten, eta sionistek jendea behar zuten Palestina kolonizatzeke

sionismoarena, baina 1940ko hamarkadan “zeharo ahazten zituen Ekialde Hurbileko errealtatea eta munduaren gaiztakeria”, proiektu chovinista bat zen eta ez zen “juduen etsaien aurka eraikitzen ari, baizik eta [juduen] balizko lagun eta auzokideen aurka”. Hamarkada batean zehar landutako kritikak jaso zituen *Sionismoa berriz pentsatuz*

artikuluari: juduen liderrek traizio egin zioten beren herriari eta naziekin kolaboratu zuten, ez zuten garaiz -1935ean- mobilizaziorik sustatu, oniritzia eman zioten naziekin Palestinarako ebakuazioak antolatzeari. Arendtek nabarmendu zuen II. Mundu Gerra eta geroko mundua inperiala ala federala izango zela eta bigarren aukerak soilik ekarriko ziela onura juduei. Lehenengo formak irabazten bazuen juduen Estatu atzerriko inperioen interesgune bat besterik ez zen izango. Artikulu hura, azkenean, *Menorah Journal* aldizkari literario ez-sionistan argitaratu zuten, 1945ean.

Sarritan, historiako krimenik handiena naziek egin zutela onartzen den markotik esaten da Israelgo Estatuak naziek egiten zutena egin duela: genozidioa, garbiketa etnikoa, apartheid. Presente izan behar da, ordea, Arendtek berak adierazi eta Aimé Césaire eta *negritudeaz* pentsatu zutenek nabarmendu zuten bezala, “krimenen krimena” izan zen holokausto judua, azken batean, kolonietan “basatien” kontra sistematikoki egiten zena zurien kontra egitea izan zela.

Hannah Arendtek egin zuen Eichmann-en epaiketaren jarraipena eta eztabaida handiak piztu zituen.



Israelgo Estatuaren barne eta kanpo narratiban oso toki ezberdina hartu izan du nazismoak. Ia 1960ra arte, holokaustoan hildakoak ez ziren heroizat hartzen, are kontrakoa. Baina Alemaniak Israeli ematen zizkion kredituak bukatzen ari ziren eta Ben-Gurionek botere krisi nabarmen bat zuen eta hala erabaki zuten Eichmann Jerusalemera eraman eta epaitzea (ziklo hura 1967ko Sei Eguneko Gerrarekin itxiko zen).

2023ko azaroan gaude eta Gazan armada sionistak hilabete batean 10.000 zibil hil ditu, erdiak haurrak. Bereziki interesgarria da uneotan Arendten *Eichmann Jerusalem* irakurtzea, baina modu alternatibo

batean: liburuan *sionismo* ala *sionista* hitza agertzen den 61 biderren bidez. Hitz horiek agertzen diren aldiro bi alderdi nabarmentzen dira. Batetik, “azken soluzioa” erabaki eta antolatu zuen Adolf Eichmann proiektu sionistaren zale bat zela garbi geratzen da (*Juduen Estatua* irakurri zuenetik Herzlen zale handia zen: 1939an Herzlen hilobia profanatzearren kontra jardun zuen, besteak beste). Gainera, nazientzat sionismoa *win win* bat zen: juduak Europatik egozten zituzten eta, gainera, segun nork gidatzen zuen operazioa, III. Reicha arioen aberria izango zen bezala izango zen Israel juduena. Bestetik, Eichmannek la-

gun juduak zeuzkala nabarmentzeaz gain, behin eta berriro aldarrikatu zuen heriotzara kondenatuko zuen epaiketari, Alemania eta Europa Ekialdeko erakunde sionistekin (Hungariakoa izan zen, akaso, nabarmenena), harreman zoragarriak izan zituztela. Are gehiago, helburu partekatuak zeuzkatela: naziek juduak ebakatu nahi zituzten eta sionistek jendea behar zuten Palestina kolonizatzeke.

Ez da errazkeria bat, ez da tokiz kanpoko alderaketa bat, nazismoak eta sionismoak ibilbide partekatu bat izan zuten, Eichmannen aurkako epaiketari agerian geratu eta Arendtek bere liburuan jaso zuen bezala.

MAHAI-INGURUA

“Gaza bonbardatzen ari den pilotu israeldarra da Eichmann”

Palestinarrak pilotu israeldar bat bahitu, epaitu eta urkatuko balute, ez litzateke gauza bera?”. Halako eta bestelako galderari erantzun nahian, Hannah Arendten *Eichmann Jerusalem* liburua abiapuntu izanda, mahaiaren bueltan elkartu ditugu bi filosofo eta politologo bat, hainbat termino gaurko egunera ekartzeko. Ingurumarietan mintzatu eta harilkatu dira, baina bi kezka hauek izan dituzte patro: zer nola erreproduzitzen da gaur egun gaizkiaren hutsaltasuna? Eichmannen tankerako figurarik identifika dezakegu?

Mahaikide izan ditugu Yolanda Barrios, filosofia irakaslea eta Agora filosofia elkarteko kidea; Mijo Lizaraburu, filosofoa eta militante trans-feminista; eta Mario Zubiaga, EHuko irakaslea eta politologoa.

■ Kontzeptu bat, ezer baino lehen: gaizkiaren hutsaltasuna. Filosofia irakaslea izanik, Yolanda, nola azaltzen diezu ikasleei?

YOLANDA BARRIOS: Lehenbizi zer den *gaizkia*. Teologiarekin lotu izan da beti. Jainkoaren agindua ez bete-tzea esan nahi zuen *gaizkia* egiteak. Jainkoaren esana bete behar zen, berak ematen baitzuen legea, jarraibidea. Beraz, gaizkiaren jatorria desobedientziarekin lotu da historikoki.

Arendtek *hutsaltasuna* aipatzen zuenean, ordea, beste gauza bat esan

nahi zuen. Ez zegoen ezbaian Eichmannnek gaizki jokatu zuela, eta hori horrela zela argi zioen Arendtek, kontrakoa leporatu bazioten ere. Filosofiaren ikuspegitik, gaizkia egiteko modu berri bat zen Eichmannena. Hau da, nobedadea zen *gaizkia* ez egotea desobedientzian oinarrituta, baizik eta obedientzian, obedientzia hutsean.

■ Eichmann ez zela ergela dio Arendtek. Buruarina bai, ordea.

Y. BARRIOS: Ez zuen adimen falta, bizitzan eta lanean aritzeko behar zituen gaitasunak zituen eta, moralaren ikuspuntutik, esan daiteke ez zeukala gabezia berezirik. Hau da, bazekien bere burua gizartera moldatzen. Baina buruarina zela esan daiteke, Arendtek adierazitakoaren arabera, hausnartzen ez zuelako. Horrekin esan nahi zuen, arrazoi instrumentala –helburuak erdieste-ko baliabideak aurkitzera mugatzen dena– ondo garatuta zeukan arren, ez zekiela bere buruarekin mintzatzeko, ez zela gai judizio propioetarako. Horregatik, Arendtek buruarintzat hartu zuen.

M. LIZARZABURU: Interesgarria da ikustea, Arendt neokantiarra izanda, nola Eichmannek ere bere jarduna justifikatzen zuen [Immanuel] Kantentz betebeharraren ideia filosofikoarekin. Justifikazio tranpatia da Eichmannena, azken finean Kantek

ez baitzuen betebeharrarekiko obedientzia itsua aldarrikatzen, Kantentz obedientzia norberak judizio bidez erabakitzekeo ideari zuzenean lotuta dago. Agian sinplifikazio bat da, baina, askotan, ikuspegi hain arrazionalistak, non pentsatzeak zuzenean eramaten zaituen krudelkeriarik ez egitera, nahiko hutsal gertatzen direla uste dut. Sokratesen intelektualismoa etikoa ere badatorkit gogora, “ongia ezagutzen duenak ongia egiten du”. Ez dut uste horrela funtzionatzen dugunik, ez dut uste arrazoinamendu hutsak beti ekintza onetara garamatzen.

MARIO ZUBIAGA: Dagokion garaian kokatu behar dugu Arendt. Judua da, nazismotik erbesteratua, aterpea bilatzen duena liberalismo politikoa- ren eta “askatasunaren” eremu ia bakarrenetarikoan, AEBetan. Hortik ulertu behar dugu berak egiten zuen galdera: zergatik eta nolatan gertatu da holokaustoa? Galderak egiteko ardura hori, erantzunei beldurrik izan gabe; horixe da Arendten ekarpena.

M. LIZARZABURU: Nire belaunaldiko jendea hazi gara nazismoaren aurkako propaganda yankiaren produkzio kultural erabatekoan, eta badirudi gizateriaren aurka egin den krimen bakarra nazismoa izan dela. Galdegin ohi da hain lasai eta hain sarri ea nola izan zen posible holokaustoa, eta hau esaten ari garenean Gazan

umeak hiltzen ari dira etengabe.

M. ZUBIAGA: Gaizki absolutuaren ideia dago atzean. Uste dut gaizki absolutuaren aurrean armarik gabe gaudela. Edozein sarraski edo basakeri ikusten dugunean, esaterako gizon batek emaztea eta lau seme-alaba hiltzen dituenean, azalpena bilatzen saiatzen gara. Sarri azalpen psikologikoa izaten da –“gaizki zegoen burutik”–, eta horrek lasaitasuna ematen digu, ihesbide moral bat da. Arendtek, ordea, esaten digu gaizkia egiteko ez dagoela gaiztoa izan beharrik, alegia, gaizkia ez dela, berez, gaiztoa. Gaizkia ez dute gaiztoek bakarrik egiten. Areago, gaizkia egiten ari den pertsonak pentsa dezake ez dela gaiztoa izaten ari. Beste kontu bat da gaiztoa izatea beste batzuen begietan. Eichmann herritar ona zen nazismoaren aparatu bu-



**“FILOSOFIAREN
IKUSPEGITIK, GAIZKIA
EGITEKO MODU BERRIA
DA EICHMANNENA;
DESOBEDIENTZIAN
OINARRITUTA, ETA EZ
OBEDIENTZIAN”**

YOLANDA BARRIOS

rokratiko administratiboarentzat, burokraziak agintzen ziona betetzen ari baitzen. Beraz, Eichmann zintzoa da bere sistema moralean.

■ Era berean, pieza bat gehiago zen makineria burokratiko horretan, eta komunitate baten parte zen.

Y. BARRIOS: Agian interesgarria izan daiteke azaltzea, pixka bat gutxienez, zer ulertzen duen Arendtek politika hitzarekin. Berak boterea, ikuspuntu klasikoari helduz, ez du lotzen biolentziarekin, baizik eta komunitateak duen boterearekin, eragileak etengabe eztabaidan eta jokatzeko aritzen direlako mundu partekatua sortzen. Ildo horretan kokatzen du politika. Beraz, bere ikuspuntutik, politikak bestearen izaera diferentea onartzea du abiapuntu.

M. ZUBIAGA: Politikaren definizioa “elkarrekin egotea” da, *polis*-aren kontzeptualizazio horretan, elkarrekinzate batean. Politikaren dimentsio asoziatiboa da hori, eta horrela



Ezker eskuin, Mario Zubiaga,
Mijo Lizaraburu eta
Yolanda Barrios.

ulertzen du Arendtek. Hala ere, sarri ahaztu egiten zaigu politikaren dimentsio disasoziatiboa, bere-berea duena, konfliktua eta gerra.

🗨️ **Gizon obedientea zen Eichmann, eta Arendtek, liburuan, tarte esanguratsua eskaintzen dio obedientziari eta desobedientziari. Mario, zu, hitzaurrean, desobedientzian zentratu zara.**

M. ZUBIAGA: Desobedientzia definitzerakoan joko interesgarria egiten du Arendtek. Alde batetik, norberak bere kontzientziari kasu egitea dago, eta ez legeari; beraz, ikuspegi kantiarretik autogobernatzea da, hau da, “kanpotik datorrena ez dago nire kontzientziaren gainetik” esatea, eta jainkoaren agindua edo legea izan daitekeena desobeditzea. Aldi berean, beste aldetik, tentsio bat dago desobedientziaren kontzeptualizazioarekin. Dimentsio kolektiboa ematen dio Arendtek, eta hor bereiz daitezke kontzientzia objektua –“nire kontzientziak ez dit uzten lege hau betetzen”–, eta desobedientzia, kolektiboa izango dena beti.

Beraz, galdera da: Eichmannek desobeditu zezakeen? Burokrata batek agindu bat jasotzen duenean aldarrikatu dezake “kontzientzia objektua”, eta esan moralak ez diola baimentzen hori egitea? Sistema totalitario batean ez da posible. Horregatik, desobedientzia zibila soilik bideragarria izan daiteke sistema demokratikoetan, ekintza politiko gisa. Sistema totalitarioetan erabili daiteke, baina borroka molde sakrifikatua izango da, martiria.

M. LIZARZABURU: Aipu bat ekarri nahiko nuke hona, Arendtena, *Ardura eta judizioa* liburutik hartuta: “Arma batekin mehatxatzen bazaituzte eta esaten badizute ‘zure laguna hil edo nik hiltzen zaitut’, tentatzen ari zaizu. Eta horixe da guztia. Tentazioa izanda ere zure bizia jokoan egotea salbueslea izan daiteke



DANI BLANCO / ARGIA CC BY SA



“POLIZIAZ HITZ EGITEA ERRAZEGIA DA. PENTSATU BEHARKO GENUKE GEURE BURUEZ ERE BAI, EA ZER NOLAKO JOKABIDEAK AZALERATZEN DITUGUN”

YOLANDA BARRIOS

ikuspegi legeetik, baina ez da justifikazio morala”.

Y. BARRIOS: Platonen esperientziak Sirakusan, besteak beste, argi utzi zigun politika eta etika eremu ezberdinak direla. Jokabide ezberdinak dagozkie, eta erronka handia da horien arteko harmonia lortzea, hau da, politikagintza zuzena burutzea moralaren ikuspuntutik.

🗨️ **Desobedientziaren pasartean esaten du Arendtek: eskubide eta askatasun guztiak datoz desobedientzia ekintzetatik.**

M. ZUBIAGA: Boterearen adierazpenak dira horiek, ez zeudenetik sortuak. Oraindik ez dakigu hurrengo eskubide eta askatasunak zeintzuk

izango diren, baina egongo dira, etorriko dira. Desobedientziak mantentzen du zerrenda edo zauri hori zabalik. Eskubide eta askatasunen alde borrokan egiten dutenek nahi izaten dutena zera da, aldarrikatzen duten hori erakundetzea, finkatzea. Baina jakina, egonkortze horrek suposatzen du botere harreman konkretu bat kristalizatu egiten dela.

M. LIZARZABURU: Lausotzea ekartzen du. Feminismoarekin apur bat horixe gertatu da. Badirudi gaudela puntu batetan non feminismoa eta bere alde “borrokalaria” erakundetu den, berez ez denean horrela, ez direnean helburuak inondik inora ere bete. Ez dut esaten zerbait txarra denik erakundeek ardura beregain hartzea, ahalmen handiagoa baitute jende gehiagorengana iristeko. Gure asanblada erradikaletan nire ama eta nire amona ez dira sartzen, eta haietzako ere feminismoa behar da.

Esan bezala, mugimenduaren eskaerak ez dira bete, aurpegi-zuriketak eginez feminismoaren aurkako erreakzioa aktibatuta da. Antifeministak bihurtu dira “desobediente”. Ultraeskuinaren joera desobediente bat badago orokorrean, agenda 2030aren aurka, ekologismoaren kontra... Eta ez negazionismoaren

ikuspegitik soilik. “Ni ez naiz engainatzen uzten” eta horrelako diskurtsoak erabiltzen dituzten *pentasari individual desobediente* figurak areagotu dira.

M. ZUBIAGA: Desobedientzia hutsala ere badago, eta ordenuaren aldeko desobedientzia, eta desobedientzia atzerakoia. Baina modu batean edo bestean, aldaketa prozesu sakonak abian daudenenean pizten dira desobedientziak: justiziaren kontzeptualizazioa ezbaian dagoenean, eta justizia kontzeptu desberdin horiek eta indarrean dagoen legea talkan daudenean.

Bestalde, desobedientzia tresna iraultzailea izan dadin, zentzua izan dezan, zigortua izatea behar du. Hau da, desobedientziak bere eraginkortasun guztia izan dezan, nahitaezko du sistemak zigorrarekin erantzutea. Desobedientziari gorentasun etikoa ematen dio zigorrak, “sistema baino etikoagoa naiz, justuagoa, bidezkoagoa”. Horri esker lortzen da desobedientzia gizartearen erroztzea, eta gizarte zabalak arazoia ematea desobedienteei. Asaldatze etikoa orokorrak zabaltzen du aldaketaren atean legea iraultzeko bidea. Tresna iraultzailea izan behar du, eta Arendtek ardatz berean kokatzen



“NAZISMOAREN AURKAKO PROPAGANDA YANKIAREN PRODUKZIO KULTURAL ERABATEKOAN HAZI GARA”

MIJO LIZARZABURU

zituen biolentzia eza, desobedientzia, ekintza politikoa eta iraultza, politika bera...

M. LIZARZABURU: Kirrinka egiten dit biolentzia ezak. Uste dut lortu diren eskubide gehienak biolentziarekin lortu direla, eta desobedientzia hutsak ez duela eraginkortasun kontra-hegemonikorik sortzen.

M. ZUBIAGA: Biolentziari buruzko gaian, Arendtek esaten du beharrezkoa dela biolentzia momentu jakin batean, dominazio egitura apurtzeko, baina biolentziak ez duela eraikiko boterea. Gero eta botere gehiago, orduan eta gutxiago behar da biolentzia.

Botereari eta biolentziari estuki lotuta, ordena publikoaren

eta segurtasunaren izenean lan egiten duen figura da Polizia. Akaso adibiderik bistakoena ere bai, Estatuaren aginduak obediente betetzen dituen zera horretan. Problematikoa da, era berean.

M. LIZARZABURU: Donostiako Tabakalera egon zarete azkenaldian? Gorrotagarria da. Ezin duzu kafe bat hartu bi gazte moro jazarriak izan gabe Poliziaren partetik.

Lehen aipatu dut arrazoiak, bere baitan, ez duela balio handirik zapalkuntza estrukturalaren aurrean. Imajinatu agente subjektu hori indibidualki, Unai agentea demagun, moraliki pentsatzen jartzen dela ea ondo edo gaizki dagoen egiten ari dena. Uste dut ez dela fokua lekua, pisu gutxikoa dela, eta emozioen eskema bat sartuta ere ez dut uste erabilgarria denik. Enpatia sentituko balu ere, zer? Estatu arrazistaren peoi bat besterik ez da.

M. ZUBIAGA: Baina Unai pentsatuko balu zer egiten ari den? Ez luke hausnartuko, gizatasunetik, “hau ezin dut egin”? Pentsatuko luke ea zilegi den?

M. LIZARZABURU: Justifikazioak aurkituko lituzke: “Bai, moro horiek arazoak sortzen dizkiete bizilagunei”.

M. ZUBIAGA: Egiturak duen pisua hain da izugarria, giza agente indibidualak ez daukala lekurik, hau da, agentea bera ez dela gai galdera askerik egiteko bere buruari.

Parentesi txiki bat. Urtero, unibertsitateko klasera gonbidatzen dugu ELAko funtzio publikoko arduraduna, Ertzaintzan ardura duena. Sindikalista horrek esan ohi digu oso kezkatuta daudela, deriba izugarria delako. Kultura polizial bezala definitzen du berak egitura gisa izendatu dugun hori, eta kultura polizial horretan taldeak daukan garrantzia izugarri handia da. Egitura horrek ez dio uzten polizia banakoari ezer pentsatzen, ez baldin bada bere lankideen logikan.

Eichmannek bulego batean egiten zuen lan, lankideak zituen alboan,



logika berean egiten zuten lan...

Y. BARRIOS: Aipatu behar da gizarte modernoetan enpleguak duen garrantzia. Izan ere, langabeak ez du leku zehatzik gizartean, gehiengoarentzat ekonomikoki ezinbestekoa izateaz gain, sisteman, gizartean, kokatzen gaituelako. Enpleguak ematen dizu gizartearen parte izateko rol bat, nortasuna, papera. Bestela ez zara inor. Makineriatik kanpo zaude.

M. LIZARZABURU: Utziko bazenidate lanik egin gabe bizitzen, identitatea bilatuko nuke nire kabuz [barre egin du].

Y. BARRIOS: Ideia bikaina [barre egin du]. Enpleguaren ezinbestekotasunaren ideia lausotzen ari da gaur egun. Lanaren kultura baino, aisialdiaren kultura gaude, eta horrek ere bazterkeriak sortzen ditu.

M. ZUBIAGA: Maila berean jar dezakegu polizia bat, Eichmann edo Gazako bonbardaketa egiten ari den pilotu israeldar bat? Testuinguru totalitario batean, enplegua bera ere egitura totalitario batean dago. Gu polizia gisa, sistema demokratiko batean, sinestera hel gaitzke eskubide eta askatasun oro zaintzea dela gure zeregina, eta horien oreka mantentzea. Hori sinesgarria da geure burua engainatu gabe. Gero, momentu jakin batean jazarri behar dugula norbait, egin behar dugula ekintza jakin bat... Justifika diezaiogeku geure buruari argudio sinpleak emanda, bata ilegalki heldu delako herrialdera eta besteak alokairua ez duelako ordaintzen.

Bigarren kasuan, Gaza bonbardatzen ari den pilotuari erreparatuta: bai, badaki bonba jaurtitzeko duen unean zer jende hilko duen. Gehienak zibilak, emakumeak, umeak... Errukirik gabe. Eta hori "Eichmann" da, hain zuzen. Sistema ia-totalitario bat dago atzean. Nancy Fraser filosofo-politikoak aipatzen du, Arendten kasua aztertuta, mende horretako egoera totalitaria zela, baina orain, bizitzen ari garen egoera totalitario

izatetik gertu dagoela. Ez soilik Gazan; sistema neoliberal bera ari da totalitarioago bihurtzen.

Gazakoa jarraitzen ari garen honetan pentsatzen dut: aizue, zuek bahitu, epaitu eta urkatu zenuen Eichmann, eta zuek ari zarete Eichmannena egiten. Palestinarrek aukera izango balute pilotu hori bahitzeko eta epaitzeko, zer nolako epaiketa izango litzateke? Eta zein egongo litzateke Arendten lana egiten epaiketa horretan? Ikusita sistema komunikatiboa, dauzkagun egiturak, sistema totalitario batetik gertu daudenak... Ez genuke Arendten modukorik edukiko. Pentsatzea eta pentsaraztea salbuespena bilakatzen ari da.



“BADIRUDI GIZATERIAREN AURKA EGIN DEN KRIMEN BAKARRA NAZISMOA IZAN DELA, ETA GAZA BONBARDATZEN JARRAITZEN DU ISRAELEK”

MIJO LIZARZABURU

M. LIZARZABURU: Zaila egiten zait, ez dut totalitarismoa bizi izan. Askotan egiten dira arrakala horiek demokraziaren eta totalitarismoaren artean, baina nik ez dut ikusten.

Polizia bat demokraziaren baitan esan duzu, eta oso adibide konkretura joko dut. Lehen Infernuan bizi nintzen, Donostian, etxebizitza okupatu batzuetan. Subjektuaren arabera eman zen distentsioa. Zuriak ginenak ez gintuzten desalojatu, arrazializatuak bai, bazekitenean ez zegoela aterperako alternatiba errealik. Uler dezaket biolentzia eta indarkeria batzuk estatu totali-

tarioetan ematen direla, eta beste kontu bat direla demokrazian egin daitezkeen kontu puntualak. Hau ez da puntuala; egiturazkoa da.

M. ZUBIAGA: Ez da ikuspegi binario bat, edo totalitarismoa edo demokrazia. Ikuspegi dinamikoago batetik, etengabe ari gara demokratizatzen edo desdemokratizatzen. Fluktuazio horretan azkartu eta areagotu egin dira desdemokratizazio prozesuak. Eta konkretuki hitz eginda, Polizia hizpide izan dugun honetan, Mozal Legea. Poliziaren ikuspegitik lege horrek babesten duen inpunitatea izugarria da. Totalitarismotik gertu dauden joera batzuk egon badaude, baina horrek ez du esan nahi egoera totalitario batean bizi garenik.

■ Faxismoa, nazismoa... Lider bat dago, edo figuratu izan da beti, puntaren puntan. Liderraren beharra du gizakiak, gizarteak?

M. LIZARZABURU: Ez dut uste liderra behar denik, baizik eta botere egituratua. Botere hori, askotan, lider baten baitan pertsonifikatzen da, eta populazio arruntarentzat gauza konkretu batzuk egiten dira lider horrekin enpatizatzeke. Bistakoa da Espainiako Leonorrekin egin dutena: emakume sinplea omen da, jatorra, eta musika eta artista jakin batzuk entzuten ditu. Askoz ere zailagoa da, aldiz, Europar Batasunarekin enpatizatzea, edo Nazioarteko Diru Funtzarekin.

M. ZUBIAGA: Botere egituraketa horrekin oso lotuta dago obedienciaaren erosotasuna. Eroso gaude obeditzen dugunean. Gehienetan, gehienok, erabaki edo agindu gehienak obeditzen ditugu, lasaitasuna ematen digu horrek. Ez da bakarrik legea; praktikak, jarduerak, keinuak... Egituraren parte izanda ez duzu pentsatu behar zer egin; beste batzuk erabakitzen dute zure partez. Desobediencia oso deserosoa da. Horregatik, liderra jarraitzea oso eroso da. Ardia zoriontsua da bere artaldean.



Y. BARRIOS: Bai horixe, lider autoritarioekin ez dugu ezer pentsatu behar, liderrak esango dizu zer den bidegabea eta zer ez, nortzuk diren gure egoera tamalgarriaren errudunak, zein den konponbidea... Arendtek totalitarismoaren osagaiak aztertu zituenean, ideologia nabarmendu zuen. Ideologiak azaltzen dizkigu egoeraren nondik norakoak, justifikatzen dizkigu gobernuaren jokabideak eta etsaiak sinalatzen dizkigu.

M. ZUBIAGA: Auzi bat planteatzen du Arendtek: Eichmann bezalako pertsonak sistema totalitarioetan soilik dira posible, edo egon daitezke beste sistema batzuetan, teorikoki askeago diren? Ikusi dugu Gazakoa, eta bai, uste dut posible direla edozein sistematari.

Y. BARRIOS: Eichmannen gisako jorkaerak ulertzeko eta azaltzeko makina bat saiakera egin dira. Stanley Milgram psikologoarena da horietako bat, ezagunena akaso, eta Stangfordeko Unibertsitatekoa ere bai, Philip Zimbardorena. Azken horretan, Zimbardo irakasleak fikziozko espetxe bat sortu zuen. Ikasle erdiak "atxilotuak" ziren, eta beste erdiak "poliziak". Esperimentua geldiarazi behar izan zuen, gertatu ziren jarrerak eta aldaketa psikologikoak harri-garriak izan zirelako, batik bat "polizien" partetik. Muga moralik gabeko jokabideak izan zituzten, inpunitate erabatekoz jokatu zuten, logika diabolikoan sartuta. Urte batzuk pasa



“DESOBEDIENTZIAK, TRESNA IRAULTZAILE GISA ZENTZUA IZAN DEZAN, ZIGORTUA IZATEA BEHAR DU”

MARIO ZUBIAGA

ondoren ikasleekin bildu zen berriz, eta polizia izan zirenek ez zuten horretaz hitz egin nahi. Normala da, ez duzu zure burua horretan aurkitu nahi. Errazagoa da zure irizpideei heldzea egoera kontra dagoenean.

Hala ere, Poliziaz hitz egitea errazegia iruditzen zait. Agian, pentsatu beharko geure buruez ere bai, ea zer nolako jokabideak azaleratzen ditugun. Azken finean, sistema burokratikoan bizi gara eta horren barruan artalde moduan funtzionatzen dugu askotan.

■ **Betebeharrak dituzu, baina askatasun apur bat ere bai.**

Y. BARRIOS: Hala da, baina askotan ez dugu *benetan* jokatzeko, roletan eta protokoloetan ezkututzen dugu geure burua. Aipatutako agenteen kasua kontuan hartzearen: suposatzen da, Poliziaren funtzio nagusia *segurtasuna* dela, baina *segurtasuna* definitzean dator problema, eta definizio hori ematea kontu politi-

koa da. Bestalde, polizia-agenteen jokabideak norbanakoen jokabide moduan ulertzea problematikoa da; akademietan irakasten zaizkie protokoloak, baina izaten dituzten jarrerak ez dira era indibidualean bururatutakoak.

M. ZUBIAGA: Funtzio poliziala eta Polizia kontzeptuak bereizi behar dira. Gizarte batean, *polis*-ean, aniztasuna da nagusi, pertsona oso ezberdinak dauzkagu eta guztien askatasun eta eskubideak kudeatu behar dira. Eskubide batzuk kontrajarriak dira, eta eskubideen egikaritzea kontrajarri horiek modu seguruan kudeatu beharko lirake; horixe da niretzat oinarria. Behar horretatik sortzen da funtzio poliziala. Hori desagertu daiteke gure gizarteetatik? Inoiz helduko ez den gizarte erabat justu eta harmonikoaren zain, zein da zilegizkoa den helburua, askotariko pertsonak kudeatzeko modua?

“Polizia” entzuten dugunean, ordea, sistema politiko-ekonomiko baten zerbitzura dagoen egitura bat daukagu buruan, eta egungo botere-egiturak delitu gehiago ikusten ditu langile manifestarrietan, edo Bilboko San Frantzisko auzoan, Iberdrolako dorrean baino –bertan delitugile gehiago egonda, ziurrenik–. Hori eztabaida bat da, baina horrek ez du ukatzen funtzio poliziala behar dugunik. Bi plano ezberdin dira. Elkar zaintzaren parte gisa ulertu beharko genuke funtzio polizial hori, eta egungo egitura eta jardura polizialak errotik aldatu.

M. LIZARZABURU: Klase edo arraza kontuengatik “problematico” gisa izendatzen den jendea periferiara botatzen da, eta orain, Donostian, Egia auzoa gentrifikatzen ari da, Sos arrazakeria hor jarri dute, eta ikusten da horrek nola molestatzen dion jende zuriari. Turistarik gabeko auzo batean moroak drogatzen egoteak ez du horrenbeste molestatzen; al-diz, gure museo maitatu Tabakalera alboan egiteak, bai. ●

ARGIA

BABESTEKO ARRAZOI

1. KAZETARITZA INDEPENDENTEA

Langileona delako hedabide hau, ez inolako banku, multinazional edo alderdiren.

2. EUSKARATIK ETA EUSKARAZ

Gure hizkuntzak funtsezko dituelako euskara hutsean funtzionatzen duten proiektuak.

3. HEDABIDE DIGITALA ETA DADEREKOA

Egunero sarean aktualitatea jorratu eta aldizkarian hats luzeko kazetaritza lantzen dugulako.

4. EZ GARA NEUTRALAK

ARGIAn jendartea eraldatzeko tresna izan nahi dugulako kazetaritza kritikoaren bidez.

5. PODCASTAK ETA DANTAILAK EUSKARAZ

Ehunka dokumental, film-labur, hitzaldi eta abar eskaintzen ditugulako libre eta doan.

6. ELKARLANAK BULTZATUZ

Eragile ugariekin proiektuak ditugulako: Inor Ez Da Ilegala, Bizi Baratzea, Lurra Herriari Deika, Euskarazko Plazen Sarea...

7. GOOGLE GABE

Gure irakurleen pribatutasuna babesten dugulako teknologia burujabetzan sakonduta.

8. BANAKETA EKOLOGIKOA

Bizikleta bidezko banaketa sustatzen dugulako, plastikorik gabeko zorrotan.

9. 100 URTETIK GORA

Ibilbide luzeko eta etorkizun luzeagoko proiektua delako.

10. MILAKA PERTSONAKO KOMUNITATEA

ARGIA Jendea delako proiektuaren independentziaren bermea.

11. ELKARTASUNEAN OINARRITUTAKO HARDIDETZA

Norberak erabakitzen duelako zenbat ordaindu, inor ARGIArik gabe gera ez dadin.

TXIKITIK ERAGITEN argia.eus/eginargiako

